

ETIKA EUSKALDUNONTZAT

I.- SARRERA-ABIAPUNTUAK

Lehenago idatzi dugu etikaren teoriari buruz ('Etika Unibertsala', Karmel), baita ere aipatu etika unibertsalak ematen dizkigun argiak gizakion politikagintza jarduna bideratzeko.

Hemen, aldiz, gizaki zehatz batzuen egoera politikoari ekingo diogu: Euskal Herriko gizaki hiritar garenez guri euskaldunoi dagokigun etika zehatzagoari.

Baina, Espainia eta Frantziatik hasita milaka hizkuntza bereizidun herri txiki ari garenez lurbira osoan, gure egoera eta baldintza zehatzen azterketa eredu izatea nahi nuke beste herri askorentzat.

Hasteko gogora ekarri beharrezkoak dira etika unibertsalaren edukiak:

gizakia norabidedun da;
gizakiaren norabidea maitajardunean aritzea da;
etikak eginkizunez dihardu, ez eskubideez;
etika gizakia da, gizakia etika da.

Politikagintzari buruzko ataletik, hitz hauek ekarriko ditugu gogora:

“Honelakoa azaltzen zaigu, beraz, politikaria: (1)gizaki (2)hiritar (3)talde (Estatu) arduradun. Lehenbizi gizaki. Gero hiritar. Eta azkenik, hiritarrok talde-arduradun aukeratu. Substantiboa, gizaki; adjektiboa, hiritar; eta adjektiboaren adjektibo, politikari.”

“Beraz, gaur Estatu deitzen duguna guk gizakiok, hiritar ere garenez, geure elkar zerbitzurako izendatu ditugun politikari batzuen ardurapean ipinitako geure Erakundea da.”

“gure maita-ibilbidea baldintzatuta eta mugatua egon ohi dela, bakoitzak eta gu bakoitzaren gizarteak mugatzen/eskaintzen/ezartzen dizkigun iritzi, ohitura, sinesmen, legeen bitartez. Ezin dugu aldi bakoitzean gogoan eduki izan litezkeen ibil pista guztiak. Horregatik, gure gizarte erakundeen eta gure politikarien zeregin nagusia hori da: gure iritzi, ohitura, sinesmen, legediak eta ekintzak aldi eta une bakoitzean maitajarduneko ibilbideetara bideratzen guri gizakioi laguntzea.”

Gizakia beti da maitari/maitagai. Herritarra beti da maitagarri, gizaki denez. Talde arduradun den herritarra (politikaria) beti da maitagarri, gizaki denez. Baina gizakiaren ekin-zak/erakundeak ez dira beti maitagarri, inola.

Gizakiaren aurka egin herritarraren alde egitearren, etikaren ukapena da, aberrazioa da. Gizakiaren aurka egin, herritar talde arduradunaren alde egitearren etikaren ukapena da, aberrazioa da. Gizakiaren aurka egin, gizakien ekintza/tresna baten alde (Estatuaren alde, adibidez) egitearren, etikaren ukapena da, aberrazioa da. Bestelako ideia eta printzipioen bila jardutea faltsukeria da. Gizakia da helburua, bidea eta abiapuntua den bezalaxe. Etika gizakia da.

Idazki honek dialogoa izatea nahiko luke. Batetik Euskal Herriko herritarrekin, eta bestetik Espainia eta Frantziako biztanleekin. Arrazoiak eskainiz, erruak uxatuz; batez ere denon eginkizunak argitu eta betearazten lagundu nahian. Beti eta danean egiati jardunez, egiaren maitasunak gidatuta.

Bakean jardun behar dugu, gogo muineko bakean, eginkizunen maitajardunean sortzen zaigun barruko bakean. Ez politika hutsezko bakean.

II.- GURE EUSKALDUNON EGOERA

Gure euskaldunon gaurko arazo nagusia geure izana, geure nortasuna da. Euskal Herri izan, lehenbizi. Euskal Herri bizi, Euskal Herri iraun.

Gure nortasuna gordetzea eta osatzea gure oinarrizko herri-tar eginkizuna da. Guk ezin diogu gure nortasunari uko egin. Guk ondo ikusten dugu beste eremuetako herritarrek (hala frantziarrek eta espainiarrek) euren nortasuna garatzen saiatze-ari. Guk ez diogu inori kalterik egiten gure nortasuna, euskal-dun nortasuna zainduz eta garatuz.. Alderantziz, guk geure nortasuna gordez eta garatuz lortu behar dugu nortasun desberdindun herriekin batera bakean eta pozik bizi izatea. Espai-niarrak espainiar izatearen pozean. Gu, euskaldunok, euskal-dun izatearen pozean. Elkarren maitasunean, maitajardunaren pozean. Egiak gidatutako ibilbidean.

Gure euskal nortasunak ere hamaika alderdi eta ezaugarri dauzka. Eta gure nortasunari egiten diguten erasoak hamaika eratakoak dira. Adibide xumetzat hau emango dut: orain dela urte batzuek, Espainian, penintsulan, lau probintzia euskaldu-nek zeuzkaten lurralderako eta lurralde-bururako izen desber-dinak: Naparroa-Iruña, Araba-Gazteiz, Bizkaia-Bilbo eta Gipuz-koa-Donostia. Gure Euskal Herriko lurraldeen berezitasun hori estaltzeko/ezkutatzeko, Estatu espainolak gure alboko probin-tziei ere lurralde izenak aldatzen jardun du. Lehenago Santan-der-Santander zena orain Cantabria-Santander da. Lehenago Logroño-Logroño zena, orain Rioja-Logroño. Eta lehenago Bur-gos zena, ... oraindik ez dute asmatu izen egokirik. Adibidez, El Cid-Burgos ez omen da egokia. Baina badihardute lortzen gure berezitasuna Espainiako gazte eta ikasle guztien artean ahaztarazten, ezabatzen.

Gure Euskal Herri egoera ikertzeko, Frantziako eta Espainiako konstituzioei begiratzea da argigarriena.

*Frantziako konstituzioa.*⁴

Honela diote Frantziako bi lehen artikuluek:

«Article premier

La France est une République indivisible, laïque, démocratique et sociale. Elle assure l'égalité devant la loi de tous les citoyens sans distinction d'origine, de race ou de religion. Elle respecte toutes les croyances.»

Article 2

La langue de la République est le français.

Beraz ‘La France’ ez da lurralde bateko gizakiek –frantziarrek, hain zuzen- eraikitako erakunde historiko-kulturala, gaur ere bertako gizakiok elkarrekin maitasunean bizitzeko ondatsun-tresna jasota daukatena. Frantsesa ez da frantziarren hizkuntza. ‘La France’ eta ‘le français’ ez dira gizaki arazoak. Eta etika gizakia denez, ‘La France’ etikaren gainetik dagoen zerbait da.

La France nolabaiteko botere eraketa da. Frantziaren izana erakusteko konstituzioaren lehenengo artikuluen lehenengo hitzak agintera zehazten dute. ‘La France’ez da frantziarren ardurapeko zerbait. Frantziarrak dira ‘La France’-ren ardurapekoak. **‘La France est une république...’ ‘La langue de la République...’**. Hori da etika utzi eta lainoetatik agintera –konstituzioa- zintzilikatuz hastea.

Frantziaren konstituzioaren hasiera benetan penagarria eta lotsagarria da. ‘La France’ kontzeptua bera murriztea, mespretxatzea, hustea baita *boterearen aldarean*. Etika gizakia da. Gizakia da etika. Gizakia den denaren oinarri eta buru egin gabe, ez dago etikarik. Frantziako konstituzioa etikarik gabekoa da.

Hasiera bertatik agintera eginez gero konstituzioaren buru eta ardatz, dudagabea da ‘La France’ besterik –herri edo hiz-

kuntza euskalduna, adibidez- aipatzea ere kaltegarritzat eman- go lukeela, bere ondare bitxi gisa izan ezik. Zinismo itzelaz guri lapurtutako gure hizkuntza euren erabateko jabetza-onda- re eginez baizik.

Espainiako konstituzioa

Espainiako konstituzioari buruz bere mimetismo hutsala ai- patu besterik ez hemen. Aurrerago egingo dugu guri dagozki- gun arazoan azalpena.

III.- EUSKARA

Gure euskaldun izaeraren muinera etorritz, argi dago gure nortasunaren osagarri, ezaugarri eta adierazpen nagusia gure hizkuntza dela. Beraz, hausnarketa honetan euskara egingo dugu gure nortasunaren ardatz. Gure aukera hau ez dugu teo- rietan oinarrituko, Frantziak eta Espainiak euren hizkuntzari ematen dioten garrantzi nagusia onartuz eta azalduz baizik. Ar- gi daukate gure euskara ezabatuz gero, gure independentzia ametsa urtua izango dela.

Hau zion ‘The Economist’ aldizkariak (neutrala esan daite- ke) Frantziari buruz: *“Frantziarrek euren hizkuntza komu- nikazio-tresna baino gehiago dela eman izan dute: kultu- raren, identitatearen eta independentziaren enkarnazioa da.”*²⁴

Honela baietsi du iritzi hau l’Académie française gorenak 12-06-08an frantsesa ez beste hizkuntzak (euskara eta...) kon- stituzioan aipatzearen proposamenari buruz eginiko deklarazio- an : ‘... *la langue française a forgé la France ...portent atteinte à l’identité nationale. ... une déni de la République, une confu- sion du principe constitutif de la Nation...*’. Beraz, zelan onar- tu frantsesari itzal tanta bat egingo dion beste hizkuntzarik?

²⁴ “The French have long considered their language to be more than a tool of communication: it is an embodiment of culture, identity and independen- ce.” The Economist, January 19th 2008.

Horren beste adierazgarri bat gaurko ‘La France’k etorkinen arazoan bere hizkuntzaren ezaguerari ematen dion garrantzia nagusia.

Espanian, berriz, nahikoa da euskarari zerbaitetan non-baiten laguntzatxo bat eman nahia nabaritzea, Estatuaren erakunde eta media lekaiok euskararen kontrako konstituzioan kontsokratuta dagoen diskriminazio zapaltzailea isildu eta erdararen kontrako diskriminazioa inongo lotsarik gabe orroka sala diezaguten.

Baina gure hizkuntzaren kontrako erasoaldia, oinarrizkoa eta sakona, Frantziako eta Espainiako Estatu-Konstituzioak erakutsiko digute argi eta garbi.

a) Frantzia:

“Article 2

La langue de la République est le français”

Hizkuntza ere ez da frantziar gizakiena, goragokoa baizik, ‘République’ jainkotxoarena da. Ez baitu esaten, beharko lukeen bezala:

‘Frantziarren hizkuntza frantsesa da’,

‘La langue de la République..’ baizik. Bigarren artikulua honek ere hankaz gora ipintzen ditu gizakia eta gizakiarena, ez baitu aintzakotzat hartzen gizakia. Hor ez dago etika arrastorik, beti eta denetan, lehenbizi gizakiak baitira, gure kasu honetan frantziar gizakiak. Eta gero datoz gizaki frantziarrek eraikitako erakundeak, ‘La France’ barru.

Ez da gure arazoa nondik nora heldu diren hiritar frantziar-
rrak (batzuek batzuetan, lafrantziar-
rrak hain zuzen) beren etxea
teilatutik esekitzera. Jokaera horren
abiapuntua *lumières* eta
erklärung kontzeptuetan datza. Gizakia
adimenaren menpeko egitean, eta ez
adimena gizakiaren esaneko ahalmen bat,
beharko lukeenez. Baina arazo horren
azterketak luze joko luke. Hurrengorako
lagako dugu.

Lumières-ek ilustratuta jardun izan duten lafrantziarrek, handiek, ezin izan dute kontuan hartu ere, inola, bere konstituziozko gogoan, beste herri-hizkuntzarik eta herririk izan daitekeenik. Gu euskaldunok eta gure hizkuntza euskara ez gara existitzen ‘La France’n. Nahi omen dute frantziar batzuek La France-k betidanik lurperatuta daukatena nolabait azalaraztea. Baina, benetan, **La langue de la République est le français**”, zeren hizkuntza frantsesak egin omen du **La France**. Eta kito.

b) Espainia

Hizkuntzari buruz, Estatu espainolari ezina egin zitzaion gure hizkuntza ez aipatzea bere konstituzioan, eta honela dio:

“Artículo 3.

1.- El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla”.

Bi hizkuntzaz (adibidez: A=euskara; B=erdara) mintzo diren lurraldean lau aukera egin daitezke:

- 1) Biak beharrezko (A bai eta B bai).
- 2) Ez bata eta ez bestea beharrezko (ez A eta ez B).
- 3) Bata beharrezko egin eta bestea ez (A bai, B ez)
- 4) Bata ez egin beharrezko eta bestea bai (A ez, B bai).

Emanik A euskara dela eta B gaztelera, Estatu espainolak lau aukeren artean guretzat erasogarriena, zapaltzaileena hautatu du. Estatu Espainolak erdara jakitera behartzen gaitu. Guk, hemen, euron Euskal Herritik kanpoko gurasoen hizkuntza jakin behar dugu. Eurok, hemen, gure bertako gurasoen hizkuntza ez dute jakin beharrik. Erdara erabiltzeko eskubide osoa daukate.

Spainiaiko artikuluko diktatura hori ez da gure hizkuntzaren kontrako diskriminazioa, gure hizkuntzaren heriotza-sententzia baizik. Ez dago duda-mugatan ibiltzerik, berriketa guztiak ezin dute egia hori estali/ilundu. Gu erdarara behartuta, eurok eus-

kararen behar izpitik aske. Gu txiki, eurok handi. Gu konstituzioaren hankapean, eurok goian zapaltzaile.

Hizkuntza nazioaren eratzaille (*forgé*) baldin bada, identitate (*identité*) emaile, oinarrizko osagai (*printzipe constitutiv*); herri baten hizkuntza ezabatzea herria ezabatzea da euron aitorten zehatzetan, dudarik gabe. Hori errazago lortu nahian lapurreta lotsagabez gure euskara euron -gure hizkuntzaren etsaion- patrimonio (jabetza) bihurtu dute. Hori da horien *elebitasuna*: gure euskara guri kendu -euron ondare bitxi eginez- eta gudan euron erdara inposatu.

Euskararen heriotza sententzia gure euskal nortasunaren heriotza sententzia da, teoriatzkoa baino eraginkorragoa: pragmatikoa, bizibidezkoa. Konstituzioan bertan idatzitakoa.

IV.- GURE EUSKALDUNON EGINKIZUNA-ETIKA.

Gure nortasuna ezabatzea Estatu bien gizaldietako asmo be-tea izan denez; etorkizunean jokabide hori aldatzeko susmo edo arrisku izpirik azaltzen ez denez; bai, aldiz, euskarari (euren patrimonioari) eta gure euskal nortasunari mausoleo handia egiteko amorratzen daudenez; independentzia (askatasun osoa) beste irtenbiderik ez daukagu gure Euskal nortasuna, gu Euskal Herri izan, Euskal Herri bizi, Euskal Herri iraun nahi badugu.

Ez, adibidez, ekonomia aldetik independentzia lortuz hobeto biziko garelako –nik ziurtzat ematen dudana, inongo dudarik gabe, batz bestelako eta hitza betetzeko joera biziago dauka-gulako- baizik eta geu izateko, halako edo horrelako baina geu izateko askatasun osoa eskuratzea beste jokabiderik ez dugulako.

Argi dago, beraz, gure eginkizuna, maitakizun den eginkizuna: independentzia geureganatzea dela. Bestelako konponketa-txoak zera dira: gure herri nortasunaren ezabaketa onartzea, handiki batzuentzat botere apurren edo beste zerbaiten truke.

Eta lanean hasteko, hau baietsi behar dugu, zintzo baina ozen, espainiarren eta baita ere frantziarren aurrean:

Espainiako konstituzioaren hirugarren artikuluari; artikululu hori dakarren konstituzioari; eta konstituzio hori ezarri nahi dugun polemokrazia (gudarosteen agintea) den Estatuari, gure ezezko frontala ematen diegu.

Ondoren gure independentzia, gure askatasuna praktikatu egin behar dugu. Kanean, lantoki eta bulego guztietan eta, batez ere, erdaldun hutsez josita dauden Euskal Erakundeetan euskaraz eginez. Jardun orotarako gure nortasunaren baiesper nagusia izan behar duena; ez eskubide-eskabidea, eginkizun-maitakizuna baizik:

“NIK EZ DAUKAT ERDARAZ JAKIN BEHARRA”

Eta hori esanez, asmo betea erakutsi zeregin nagusi den gure **independentzia geureganatzen** ari garela. Hizkuntza independentzia baita herri independentziaren osagairik askoz eraginkorrena.

Gure euskaldunon eginkizuna gure tratuko jardunbidea argi uztea da, maitasunez eta errespetuz, baina argi. Euskaraz ez dakiena tartean dagoenean eta guk euskaraz egitean, bere buruan pentsamendu hau darabil:

“Nik ez dakit euskaraz. *Zergatik, bada, egiten dute euskaraz?*”

Gure euskaldunon eginkizuna zera da: guk beragan beste pentsamendu hau hausnararaztea:

“Nik ez dakit euskaraz. *Zergatik ez dakit euskaraz?*”

Eta konturatzen joan dadin lagundu behar diogu ez dela bere borondate falta bere euskara ez jakitearen kulpadun/errudun/erantzulea, konstituzioaren ediktua baizik. Konstituzioak esaten/agintzen baitio:

“Zuk ez daukazu zertaz jakin horren horko euskara bizkuntza; zuk erdaraz egiteko eskubide osoa daukazu. horko horiek baitaukate, aldiz, zure erdara bizkuntza jakin beharra.”

Beraz, euskaraz ez dakiena bere egoera aitortzen ipini behar dugu:

“Nik ez dakit euskaraz, Espainiako Konstituzioaren aginduz”.

Hauek esatea eta hauek eskatzea euskaradun ez diren euskaldunoi, latza izan liteke batzuetan, batez ere hasieran. Baina gu, euskal herritarrok, gure burujabetasuna eskuratzen saiatzean ez gara inoren kontrako ekintza burutzen. Alderantziz, kanpoko hizkuntza beharrezko onartu eta geurea utzi, maitajardunaren kontrako ekintza da. Gogoan hartzekoa denontzat.

Saiatu egin behar gara beste horiei ere jakinarazten guk ere gure nortasuna maita beharra daukagula, gure hizkuntza erabili eta gorde nahi dugula. Ez dihardugula kontra, alde baizik. Elkarren maitasun eta errespetuz, bakean, baina behin eta berriro irmo esanez:

“Nik ez daukat erdaraz jakin beharra.”

Hori da lehenengo pausoa, benetan eraginkorra eta garai-lea, independentzia praktikatzen/ezkuratzen hasteko.

V.- ESPAINIAKO KONSTITUZIOA ETA ETA.

ETA dela-eta, behartuta gaude Euskal Herriaren egoeraren oinarria eta gailurra den Espainiako konstituzioari buruz hausnarketatxo orokor bat egitera, gu euskal hiritarron arazoaren benetako oinarria egiaz argitu/garbitu nahian.

Botere gosedun diren politikariek beren botere esparrua nolabait murriztea, politikari egiten dituen senaren aurka jardutea izango litzateke. Gure “Gizakia eta...” idazkian aipatu genuen Adam Smithen arazoari buruz esana.²⁵

²⁵ “To propose that Great Britain should voluntarily give up all authority over her colonies, and leave them to elect their own magistrates, to enact their own laws, and to make peace and war as they might think proper, would be to propose such a measure as never was, and never will be adopted, by any

Beraz, argi dago euskaldunok ez dugula opari jasoko gure independentzia. Eta atsekabez, baina argi eta tinko esan behar diegu erdaldun gutztoi ez daukagula beste inolako irtenbiderik, askatasun osoa, independentzia lortzea baizik.

Franco militarren garaietan euskara debekatuta eta Euskal nortasuna ukatuta zegoen. Gogoan daukat nire ikasle egonaldian Madrilén jaso nituen Francoren hitz hauek: *“Si el Ejército ha de ser el depositario fiel de las esencias de la patria, ha de cuidar...”*

Horrelakoa zen frankismo militarra. Eta orain frankismoa konstituzioan kotsakratuta dago, gudarosteen eskuetan uztean nazioaren fundamentuak:

Artículo 2

La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española,

Eta ‘*fundamento*’ den artikulua horren arduradun gudarosteak egiten ditu.

Artículo 8.

1.- Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional.

Konstituzio hau frankismoaren jarraipen/konfirmazioa da. Konstituzio hau **neo-frankista da**, gudarosteak egiten baititu,

nation in the world. No nation ever voluntarily gave up the dominion of any province, how troublesome soever it might be to govern it, and how small soever the revenue which it afforded might be in proportion to the expence which it occasioned. Such sacrifices, though they might frequently be agreeable to the interest, are always mortifying to the pride of every nation, and what is perhaps of still greater consequence, they are always contrary to the private interest of the governing part of it, who would thereby be deprived of the disposal of many places of trust and profit, of many opportunities of acquiring wealth and distinction, which the possession of the most turbulent, and, to the great body of the people, being adopted.”

Francoren garaietan bezala, Espainiako fundamentuaren arduradun eta babesle. Eta badakigu gudarosteen hizkuntza gerra dela. Eta gudaren hizkuntzako hitzak armak direla.

Guk, euskaldunok, ez daukagu Espainiarekin hitz egiterik; Espainiak ukatu egiten digu dialogoa, mutur aurrean alboratugainditu ezineko gudarosteen harresia ipiniz, independentzia aipatu ordurako biolentzia nagusia den gudaz mehatxu eginez. Eta guk ez dugu nahi gudaren hizkuntza/jokaerara jaustea. Beraz, dialogo bidea ukatu egiten digu zeharo konstituzio neo-frankista honek.

Bestalde, alderdi politikoek oso gogoan eduki behar dute ETA-ren fundamentua Espainiako 8. artikuluko horren kopia hutsa dela:

“Las Fuerzas armadas (ETA) tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de Euskal Herria, defender su integridad y su ordenamiento constituyente.”

ETAkoak gure semeak dira. Baina ETA frankismoaren seme da eta neo-frankismoaren besoetakoa.

Madrilek egin zuen trantsizioa, frankismotik neo-frankismo-ra mugitzea izan zen. Konstituzioz Espainia ez baita demokrazia, **polemokrazia** (gudarosteen boterea) baizik. Galdera xume bat sortzen zaigu: nolatan onartzen du Bruselasek Europa Batuaren barruan **polemokraziaz** eratuta dagoen estatua; ate joka sar nahian ibili direnak eta datozenak, aldiz, horren estu eta zehatz behartzen dituenen demokraziara konbertituta etortzea? Nora begira dago?

VI.- ETA-KOEI ETA ETA ZALEEI BI HITZ

‘Euskaldunontzat etika’-z dihardugu. Gizakia norabidedun da. Bere norabidea maitatzea da. Etika gizakia da. Gizakia da etika.

Beraz, gizakia zernahirako tresnatzat hartzen badugu, apurtu eta zapuztu egiten dugu etikaren bihotza berbera. Gure eus-

kal arazoan galdu egiten ditugu gure arrazoi guztiak, hankaz gora bota gure euskal nortasunaren eta edozeren aldeko argumentu guztiak.

Alper alperrik da esatea Estatuek megaterrorismoa praktikatzen dutela. Egia da hori, lekuko azken garai hauetan *'la banda de megaterroristas de las Azores'* taldeko hamaika partaidek (Espainia barru) Irak-en eragin duten miloi bat hildako.

Baina gu bestekaldean gaude. Maitajardunaren bakean. Gizaki bat erailtzea, bitartekotzat hartzea, asma litekeen helbururik handiena, zuzenena, santuena izan da ere, zeharo onartezina da. Etikaren barrengo, muineko ukapen totala da.

Praktikatuz lortu behar dugu independentzia, bai. Baina gure eginkizuna zuzen betez, maitajardunean. Tinko, gogor, baina beti gizakiaren aldeko lanean. Gorrotoa zeharo uxatu eta gizakia abiapuntu, jardunbide eta azken helburutzat edukiz. Euskal Herrian eta kosmos guztian, etika gizakia baita.

Jenaro Garate